

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 527.000 euro emango dizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei langabeak kontratatzeko

Deialdi hori soldata-kostuak diruz laguntzeko da interes orokorreko zerbitzuak egiteko eta Europako funtsekin kofinantzatuta dago

Jueves, 23 de agosto de 2012

[Nafarroako Enplegu Zerbitzuak](#) Nafarroako irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzen deialdia ebatzi du langabeak kontratatzeko interes orokorreko edo sozialeko zerbitzuak egite aldera; diru-laguntza horiek 527.274,60 eurokoak dira eta % 50a Europako Gizarte Funtzak (EGF) kofinantzatzen du.

Diru-laguntza horiek interes orokorreko edo sozialeko zerbitzuak egiteko langabeen soldata-kostuetarako dira, pertsona horien enplegu-aukerak hobetzeko asmoz.

Deialdira 72 eskaera aurkeztu ziren, eta haietatik 33ri erantzun zaie eta 39ri uko egin puntuazio-faltagatik, epez kanpo aurkezteagatik finkatutako baremoaren arabera.

Diruz lagundutako erakundeek 49 kontratatuko dituzte, aurkeztu dituzten oroitidazkien arabera. Kontrataziorako lehentasunezko zatik jo dira 30 urtetik beherako pertsonak eta 50 urtetik gorakoak, iraupen luzeko langabeak, gizarteratzeko errentaren hartzaileak eta minusbaliotasun bat duten pertsonak.

Diru-laguntza jasotako erakundeak honako hauek dira:

Alternativas, Gizakia Herritar fundazioa, Tierras de Irujo turismoen elkarte, Plazaola Turismo Partzuergoa, Cocemfe, Atena Psicoballet fundazioa, Nafarroako Emakume Enpresarioen Elkarte (AMEDNA), Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasuna (UAGN), Fundagro, Agroturana, Secretariado Gitano fundazioa, Nafarroako Parkinson Elkarte, Eunete elkarte, Nafarroako Gurutze Gorria, Gaztelan fundazioa, Antox, Langile Profesional Autonomoen Batasuna (UPTA Nafarroa), Koine-Aequalitas fundazioa, Belaunaldi arteko Elkartasuna adin nagusien eta familiarren elkarte, Nafarroako Gazte Enpresarioen Elkarte, Fibrosi kistikoaren aurkako Nafarroako Elkarte, Aranzadi Zientzia Elkarte, Kamira Koop., TEDER elkarte, Nafarroako Enpresarioen Konfederazioa, Nafarroako IKT Enpresen Elkarte (ATANA), Amimet, Real Casa de la Misericordia, Baja Montaña-Mendi Beherea elkarte eta Lizarreriako enpresen elkarte (LASEME).

Kontua da deialdi horren aurrekontu ia guztia aurreko urteetan finantzatzen zela, sektore-konferentziatik zetorren dirutik eta EGFren finantzaketatik. Nolanahi ere, Madrildik datorren finantzaketa aurten 7.460

eurokoa da soilik; beraz, 2012. urte honetan gainerako finantzaketa guztia Nafarroako Gobernuaren kargu geratu da, eta azken horrek % 50a EGFren kofinantzaketaren bidez errekueratuko du ondoren.